

1974. urtea zen. Frankoren erregimenaren hondarrak. Euskal kulturaren berpizkundea. Iurretako Jai Batzordeak Serafin Aranzeta *Oromiño* soinujolea omentzea erabaki zuen. "Garai hartan erdi ezkutuan zebiltzan oraindik trikitilariak. Asko soinua utzita. Omenaldirako Piti, Basilio Txiki, Maurizia, Karakol, Tomas Sitze... trikitilari koadrilatxo bat elkartu genuen. Aspaldi ezagutzen zuten elkar, baina urte luzetan elkarrekin egon gabeak ziren trikitilari hauek denak eta egun ederra izan zen beraientzat". **Jose Jabier Abasolo Tiliño** iurretarraren hitzak dira. Ongi gogoan du noiz eta nola antolatu zioten Oromiñori omenaldia; asko jakin gabe, Iurretako Antzinako Instrumentuen Egunaren oinarri izango zena. "Omenaldi hartan bildutako trikitilariak eurak esaten zuten hura errepikatu egin behar zela, eta berehala jarri zidaten egin beharra: *zu arduratuko zara!*".

Hurrengo urteetan inguruko trikitilari edadetuei omenaldi txikiak egiteari eutsi zioten. Hala, 1979an 75 urtetik gorako soinu jole mordoxka bat omentzea erabaki zuten. "Hasieran soinulariei bakarrik eta gero antzinako instrumentu jotzaile denei egiten genien omenaldia. Jai Batzordekoak joaten ginen geure autoekin baserri beren bila. Egun handia izaten zen beraientzat: jo, dantzan egin, txisteak kontatu... giro ederra sortzen zen. Baina ez zen omenaldi eguna bakarrik. Urtean bizpahiru bisita egiten nizkien beren etxeetara".

Iurretako Eguna handitzen eta ospea hartzen joan zen. 25 edizioen ondoren, 1999an antolatu zuten azkenekoz. "Trikitilari askorentzat presentazio ofizialaren gisakoa zen egun hura. Aurreneko plaza inportantea. Behin Iurretan jota, aurrerantzean behar bezalako trikitilaria zen. Hemen jo zuten aurreneko jendaurrean, esaterako, Iñaki Zabaletak eta Motrikuk".

Ofizios tornularia izan da Tiliño, baina afizios, euskal kulturazalea. Oraindik galtza motxetan zebilela hasi zen lanean; hamabost urte besterik ez zituela. Eta orduantxe hasi zen, Iurretako beste hainbat mutikorekin batera, San Migeletako *Dantzari dantza* berreskuratzeko lanetan ere.

Bizkaiko trikitixari hauspo handia eman dio Tiliñok dozenaka urte hauetan. Trikitilari edadetuenei bisitan joateko ohiturari eusten dio oraindik eta, ikustekoa da, nola hartzen duten. "Abasolo! Zelan ba?" esaten dute pozarren. Besoak zabalik ematen diote ongi etorria.

Durango eta Iurretan egin dugu hitzordua Euskal Herriko Trikitixa Egunerako. Ekainaren lauan bi herri hauek soinu hotsez janzteko. Eta bide batez, Tiliñori merezi duen omenaldia egiteko. Mila esker, Tiliño!

Euskal Herriko Trikitixa Elkarte.

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA EGUNA

Iurreta-Durango,
2011ko Ekainaren 4an

EGITARAUA

- 11:00ETAN:** Iurretan bildu. Ondoren kalejira Iurretan eta Durangoan
- 12:30EAN:** Tiliñori omenaldia Iurretako plazan (Iurretako dantzariak, Zabaleta eta Mutriku eta bertsolariak izango dira besteak beste)
- 14:30EAN:** bazkaria Landakon
- 17:30EAN:** GOZATEGI taldearekin erromeria
- 19:30EAN:** jaiaren amaiera

Bazkariko tiketa aurrez hartu beharko da: 15€
trikitixa@trikitixa.net / 943 83 28 28

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA EGUNA IURRETA DURANGO

2011ko
EKAINAREN
4
GAN

